

GARA

2019/08/16

# Bilboko ASTE NAGUSIA

**Argazkia:** Marisol Ramirez | FOKU
















# ESCENARIOS

## ABANDOIBARRA

### Variedad de estilos

Este clásico escenario de la Aste Nagusia bilbaina, ubicado a la sombra del Museo Guggenheim Bilbao, sigue concentrando las actuaciones musicales más multitudinarias, con estilos muy diferentes. Todos los conciertos empiezan a las 23:30:

**Sábado 17:** Su Ta Gar.
**Domingo 18:** Sweet California.
**Lunes 19:** Dúo Dinámico.
**Martes 20:** Bebe.
**Miércoles 21:** Mónica Naranjo + BOS (Bilbao Orkestra Sinfonikoa).
**Jueves 22:** La M.O.D.A..
**Viernes 23:** Alfred.
**Sábado 24:** Go!azen (18:00), Ender & Funambulistas.


**Su Ta Gar abre el cartel de Abandoibarra.** GARA

## PARQUE EUROPA

### El escenario más joven

La música y el público joven tienen su espacio en el Parque Europa, ubicado en el barrio de Txurdinaga. Junto a las actuaciones de Huntza, Revolta Permanent, y C. Tangana, los espectáculos de Dance y DJs volverán a este escenario con Aste Nagusi Dance y Adi Megastar, las noches de 22 y 23 de agosto. Los conciertos comenzarán a las 24:00h.

**Miércoles 21:** Revolta Permanent + Huntza.
**Jueves 22:** Aste Nagusi Dance. Maxima FM.
**Viernes 23:** ADI Bilbao + Megastar.
**Sábado 24:** Pedro Capó.

## PLAZA BARRIA

### Músicas del mundo

Un año más, la Plaza Nueva de Bilbao se prepara para recibir a músicas provenientes de todo el mundo. Será en un total de ocho conciertos, que comenzarán a partir de las 23:30 horas, a base de ritmos de todo tipo, como flamenco, swing, reggae, rock and roll, funk...

**Sábado 17:** Flor del Fango "Mexicodélica". (Estado francés).
**Domingo 18:** Los que no escarmientan + Caco Senante "Boleros" (Canarias).
**Lunes 19:** O'Sister! "swing" (Andalucía).
**Martes 20:** Tin' Del Batey "Sonido cubano".
**Miércoles 21:** Linval Thompson & Strong Like Sampson Band (XXVIII Bilbao Reggae Splash).
**Jueves 22:** Flamenco Joven.
**Viernes 23:** The Etta James Experience "Swing-Blues-Soul-Funk" (Holanda).
**Sábado 24:** Xabi Aburruzaga & Lagunak ikuskizuna (Euskal Herria).


**El swing de O'Sister llenará la plaza el lunes.** GARA

## PLAZA CIRCULAR

### Verbenas

La plaza circular acoge este año las verbenas en sesiones vespertina (20:00) y nocturna (23:15):

**Sábado 17:** Show Revelación.
**Domingo 18:** Luhartz.
**Lunes 19:** Pasito Show.
**Martes 20:** En Esenzia.
**Miércoles 21:** Show Revelación.
**Jueves 22:** Akerbeltz.
**Viernes 23:** Aiko Erromeria (20:00) + Oxabi (23:15).
**Sábado 24:** Grupo Pérgola (20:00) + Tribut-ABBA (23:15).

# S MUSICALES

## SANTIAGO PLAZA

### Bertsolarien txokoa

Santiago plaza bertsozaleen topagune izango da, egunero, eguerdiko 13:00tan, asteazkenean ezik, egun horretan bertso bazkaria izango baita 14tan:

**Igandea 18:** Amets Arzallus, Miren Amuriza, Arkaitz Estiballes, Julio Soto.
**Astelehena 19:** Fredi Paia, Unai Agirre, Iñaki Viñaspre, Etxahun Lekue.
**Asteartea 20:** Beñat Gaztelumendi, Ibon Ajuria, Xabat Galletebeitia, Aitor Sarriegi.
**Asteazkena 21:** Bertso bazkaria, Onintza Enbeita eta Igor Elortza.
**Osteguna 22:** Ez da kasualitatea: Uxue Alberdi, Oihana Bartra, Nerea Ibarzabal, Aissa Intxausti.
**Ostirala 23:** Andoni Egaña, Sebastian Lizaso.
**Larunbata 24:** Alaia Martin, Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Oihana Iguaran.
**Igandea 25:** Jone Uria, Aitor Mendiluze, Jon Maia, Sustrai Colina.


**Santiago plazako bertso saioa.** Marisol RAMIREZ | FOKU

## KOMANTXE

**Larunbata 17:** More Jaia Sound System (00:00)
**Igandea 18:** K-Billy DJ (00:00).
**Astelehena 19:** Berinbau (13:30). Komando Braga (23:30), Zoroen Kluna (01:00), Moisés no duerme y Los Noctámbulos (02:30) y Lozio A.K.A. Dubtown (04:00).
**Asteartea 20:** Marmol (13:30), Moonshine Wagon (23:15), Irrekoñozibles (01:00), Striknina (2:30), AK DJ (04:00).
**Asteazkena 21:** Ttun ttun brigade (23:30), Penkoletas sisters (01:30), Intifada Marika DJs (03:00).
**Osteguna 22:** Amooma (23:30), La Tokokera (01:30), Manga Luze Selektoreak (03:00).
**Ostirala 23:** Lardi Bat DJ (13:30), Pantx OfficiaL Selektors (23:30), Pagasarri Ska All Stars (01:30), Etchecoy (03:00).
**Lar. 24:** Auzokobeats, Oskr1 & Gofreak! (00:00)

## ALGARA

**Igandea 18:** Akatz + Micky & The Buzz (23:00).
**Astelehena 19:** Bon Scott Revival Show + The Unholy Covers (23:00).
**Asteartea 20:** Joseba Irazoki + TOC (23:00).
**Asteazkena 21:** New York Ska Jazz Ensemble + MG Banda (23:00).
**Osteguna 22:** Lisabö + Niña Coyote eta Chico Tornado (23:00).
**Ostirala 23:** Anje Duhalde (23:00).


**Anje Duhaldek itxiko du Algararen egitaraua.** M. DEL VALLE

## PINPILINPAUXA

**Larunbata 17:** Roser (00:30).
**Igandea 18:** Nacha la Macha (00:30).
**Astelehena 19:** Ríos de Gloria (00:30).
**Asteartea 20:** OBK (00:30).
**Asteazkena 21:** Pingüistar (00:30).
**Osteguna 22:** Los toreros muertos (00:30).
**Ostirala 23:** Las Fellini (00:30).
**Larunbata 24:** Las Chillers (00:30).

## EUSKALGUNEA

**Igandea 18:** Esne Beltza (23:00).
**Astelehena 19:** Sutan + Mconak (23:00).
**Asteartea 20:** Ander Enziondo (13:00 Marianito musikatua). La Mare + Nogen (23:00).
**Asteazkena 21:** Afrontu (13:00), Enkore + DJ Elepunto (23:00).
**Osteguna 22:** 4 haizetara (13:00) + As netas da Maurizia, Gora Herria (20:30).
**Larunbata 24:** DJ Pincha Me (13:00).


**As Netas da Maurizia, ostegunean.** GARA















ELKARRIZKETA

**Beatriz SEVER eta Itsasne NUÑEZ**
PREGOILARIA ETA TXUPINERA

Aste Nagusiaren 41. edizioan bi emakume izango dira jaiaren ordezkari nagusiak: Beatriz Sever Egaña, adingabe transexualen familien elkarteko kidea, izango da aurtengo pregoilaria eta Itsasne Nuñez Viadero, Otxarkoaga auzoko Pa...ya! konpartsako kidea, txupinera. Jakin badakite bederatzi egun gogor izango direla, baina prest daude esperientzia paregabe hau bizitzen hasteko.

# «Herritarrekin egoteko eta beraiekin batera jai giroaz disfrutatzeko gaude»

Ibon GAMINDE AYA | **BILBO**

Bea Sever Egaña 1973. urtean jaio zen Londresen. Algortan bizi arren, guraso bilbotarrak ditu. Hogei urtez kazetari lanetan ibili ostean, bere ustezko alaba semea zela jakin zuenean buru-belarri sartu zen sexologiaren munduan. Hasieran Chrysallis taldean, eta orain Naizen elkartean dihardu. Itsasne Nuñez Viaderok, berriz, 30 urte ditu eta Otxarkoagako Pa...Ya konpartsako kidea da. Zuzenbidean lizentziatu zen eta sindikalgintzan lan egiten du. Unibertsitate garaian hasi zen Pa...Ya konpartsan parte hartzen eta hortik aurrera zeharo aldatu zitzaion jai herrikoiak ulertzeko eta bizitzeko ikuspuntua.

**Nola jakin zenuten hautatuak izan zinetela? Pozik hartu zenuten izendapena?**

**Itsasne Nuñez:** Oporretan nengoen, kartetara jolasten, eta nik banekien arratsalde horretan konpartsako asanblada bat izango zela txupinera nork izan behar zuen erabakitzeko, baina beste izen batzuk nituen buruan. Gure konpartsan txupinera izatea merezi duten emakume zerrenda luzea dugu. Horregatik, proposamena egiteko deitu zidatenean sorpresaz bota nuen: 'txupinera ni?!'; eta une horretan nire ondoan zeuden ama eta amamari ilusio espresio handi bat irudikatu zitzaien aurpegian, eta hori ikusita ezin izan nion eskaintzari uko egin.

**Bea Sever:** Ezustean harrapatu nau izendapenak, ez nuen inondik inora imajinatzen. Aurreko egunean esan zidaten nire izena proposatuko zutela, baina beste batzuk aterako zirelakoan nengoen. Deitu zidatenean oso harrituta geratu nintzen, baina beste alde batetik, oso pozik izendapenarekin. Hala ere, hortik bi egunera konturatu nintzen ardura eta erantzukizun handia zela, pixka bat urduritu ninduen. Kontua da familia gazte eta ume asko ditudala atzetik, haien bozeramaile izango naiz eta gai hauek oihartzuna izan dezaten aukera paregabea denez, horregatik esan nuen baietz berehala.

**Prest al zaudete datorrenari gogoz ekiteko?**

**B.S.:** Aste Nagusia beste era batean bizitzeko irrikaz nago. Baina aldi berean badakit gogorra izango dela, beste pregoilari batzuekin hitz egiteko aukera izan dut eta aitortu didate esperientzia paregabea dela baina aldi berean oso nekagarria.

**I.N.:** Indarrak biltzen igaro dut uda osoa eta, orain, unea heltzeko irrikaz nago; eta Bearekin batera Aste Nagusirako kuadrilla aparta osatuko dugula uste dut.

**Guztion miran egongo zarete hurrengo bederatzi egunetan. Nola eramango duzue hori?**

**I.N.:** Lasai asko. Gurekin mintzatu edo gurekin argazki bat atera nahi duen oro ongi etorria izango da. Aste Nagusiko bi ikono garrantzitsu dira pregoilaria eta txupinera, eta hein handi batean horretarako gaude, herritarrekin egoteko eta beraiekin batera jai giroaz disfrutatzeko.

**B.S.:** Nahiko potentea izango da hainbeste jende guri begira edukitzea. Aste Nagusiaren aurretik ere jendeak kalean gelditzen nau animatzeko: 'Aupa pregoilari!'. Badakit gogorra izango dela alde horretatik, apenas intimitaterik gabeko egunak. Nik elkartearengatik egiten dut, espero dut Aste Nagusia pasata jendea ez akordatzea nirekin, baina bai nire mezuarekin.

**Nori eskainiko diozue aurtengo txupinazoa?**

**B.S.:** Zalantza barik, haur eta gazte transexualei eta euren familiei eskainiko diet nire pregoia. Hortik joango da nire aldarrikapena eta batez ere aniztasunaren aldeko aldarria, gurea bezalako gizarte batean denok daukagulako lekua eta denok izango garelako askeagoak benetan nor garen izateko.

**I.N.:** Nik zorakeria hau posible egiten duten boluntario guztiei eskaini nahi nieke txupinazoa.






Aipamen berezia, Pa...Ya konpartsa osatzen dugun familia erraldoiari eta espresuki, gure kide Arantza Garbayori. Bera izan zen Pa...Ya-ko lehenengo txupinera duela 20 urte eta aurtengo txupinazo hau, maitasun osoz, berari eskainia egongo da.

**Zergatik da zuentzat hain berezia Aste Nagusia?**

**I.N.:** Hiria eta hiria bizitzeko era goitik behera aldatzen delako. Bederatzi egunez, kaleak okupatu egiten ditugu, disfrutatzeko eta disfrutarazteko helburu bakarrarekin. Semaforoek funtzionatzeari uzten diote, trafikoa gelditu egiten da, eta astebetez, egunerokotasunak inposatzen dizkigun ardura eta zeregin guztiez ahazteko aukera izaten dugu familia eta lagunekin batera.

**B.S.:** Niretzat betidanik izan da oso berezia Aste Nagusia, gurasoak bilbotarrak ditut. Nire nebekin batera pasatu izan ditut Aste Nagusiak Bilboko bihotzean dagoen amamaren etxean.

**41. edizioa da aurtengoa. Nola bizi izan duzue zuek aurretik Aste Nagusia? Oroitzapenen bat kontatzeko, pasarteren bat...**

**I.N.:** Nik, askok bezala, konpartsakide izateak markatzen duen erritmora dantzan. Orokorrean, egunean zehar programazioa aurrera ateratzeko txandak egiten eta azken ordukoak konpontzen. Lasaitzeko unea niretzat iluntze aldera heltzen da. Gauez ere sekulako giroa dago, dena den. Horregatik orain, lagunek ziria sartzen didate Aste Nagusiko 'txupitera' izatetik 'txupinera' izatera heldu naizelako.

**B.S.:** Akordatzen naiz uholdeak izan zirenean amamaren etxean ginela lehengusu guztiekin, eta hor geratu ginen isolatuta. Ezin ziren gurasoak gure bila etorri, gu argi barik, janari barik, ezer barik. Orduan amamak leiho ondoan josten jarri gintuen... eta denak ikasi genuen josten (barreak).

**Aste Nagusiari gehituko ala kenduko zenioke ezer? Zer ikusten duzue faltan eta zer soberan Bilboko jaietan?**

**I.N.:** Gehitu... jende berria gehituko nuke, parrandazale berriak beti direlako ongi etorriak. Adibidez, belaunaldi jakin bateko parrandazaleen aportazioak sumatzen ditut faltan. Pentsionistei buruz ari naiz. Astelehenero euren burua antolatzeko erakutsi duten gaitasun horrek jai ereduan ere izan behar duelako isla. Batzuk badaude horretan buru-belarri, nik ezagutzen ditut. Seguru nago subjektu aktibo bezala jaiei ekarpen izugarriak egin ahal dizkietela.

Eta soberan dagoena argi dago, tamalez: matxiruloak. Misoginia eta faxismoak milaka espresio ditu, horietariko batzuk, ebidenteenak direnak, onartuak ditugu gaurko gizartean; beste batzuk, ez horrenbeste. Behin eta berriro errepikatuko dugu, baboso eta erasotzaileak ez direla gure espazioetan ongi etorriak. Horregatik, lanean jarraituko dugu inolako erasorik gabeko jaiguneak eraiki arte.



Argazkiak: Aritz LOIOLA | FOKU

*«Familia gazte eta ume asko ditut atzetik, haien bozeramaile izango naiz, eta gai hauek oihartzuna izan dezaten aukera paregabea da».*

*«Aste Nagusiari jende berria gehituko nioke. Adibidez, belaunaldi jakin bateko parrandazaleen aportazioen falta sumatzen dut».*







**AGURRA | SALUDO**
**ASTE NAGUSIA 2019**
**B**
**Bilbao**



Beste urte batez, Bilbo festan murgilduko da, baita ondo murgildu ere: gure uriaren doako aisia publikoaren eskaintza Europa hegoaldeko garrantzitsuenetako bat da. Aste Nagusiak hamarkada berri bati ekingo dio aurten, Marijaiaren begiradapean. Gure Marijaia maitea, beti gazte.

Munduko aste handienaren 41. edizio honetan, aurtengo kartelak, "Gure Mundua" deritzonak, ederki erakusten du harro gaudela nazioarteko metropoli bizienetako bateko herritar izateaz. Gure uriak, Aste Nagusiaren bederatzi egunetan gutxienez, munduko jaien hiriburua izan nahi luke.

Jaia, Bilbon, errespetua, dibertsitatea, parte-hartzea eta integrazioa da. Denak dira ondo etorriak gure urian. Ateak zabal-zabalik dauzkagu azentu guztientzat eta dibertsiomodu guztientzat.

Mila jarduera inguru prestatu ditugu: kontzertuak, kalejirak, erraldoiak eta buruhandiak, euskal dantzen erakusketak, herri kirolak, adin guztietarako kale-ikuskizunak, etengabeko animazioa txosnen eremuan, antzerkia, barrakak, zirkua, kirola... Aste Nagusia urteko ekitaldirik garrantzitsuena da Bilboko kultur eta aisia agenda mardulean.

Betiko legez, guztiek izango dute euren txokoa jaietan: umeek, gazteek, nerabeek, helduek, adineko pertsonek... Baita ere gure artean ez daudenek, heldu berriek eta, edonondik datozela ere, jaian murgildu nahi dutenek.

Eta, noski, Bilbon ezezko borobila esaten diegu gizatasun ezari, borrokei, lapurretei, xenofobiari eta, are ezezko borobilagoa, LGTBIfobiari, eraso sexistei eta genero-indarkeriari.

Aste Nagusiak munduari zer garen eta zer izaten jarraitu nahi dugun erakustea nahi dugu.

***Zorionak, Marijaia!***
***Zorionak, Bilbo!***

Un año más, Bilbao se viste de fiesta, y lo hace a lo grande, con una de las ofertas de ocio público gratuito más importantes del sur de Europa. Aste Nagusia comienza una nueva década bajo el amparo de nuestra querida Marijaia, por la que nunca pasan los años.

Y en esta 41ª edición de la semana más grande del mundo, el cartel anunciador, "Gure Mundua" revela claramente nuestro orgullo como ciudadanas y ciudadanos de una de las metrópolis más pujantes del panorama internacional, que aspira a convertirse, por lo menos, durante los nueve días de Aste Nagusia, en la capital festiva del mundo.

En Bilbao, la fiesta es respeto, diversidad, participación e integración. Todo el mundo es bienvenido a nuestra ciudad, que abre sus puertas a todos los acentos y a todas las formas de divertirse.

Con cerca de un millar de actividades previstas, que incluyen conciertos, pasacalles, gigantes y cabezudos, exhibiciones de danzas vascas, herri kirolak, espectáculos de calle para todas las edades, animación continua en la zona de txosnas, teatro, barracas, circo y deporte, Aste Nagusia constituye el mayor evento anual de la extensa agenda cultural y de ocio de Bilbao.

Como siempre, todo el mundo tiene su hueco en nuestras fiestas: niñas y niños, jóvenes, adolescentes, personas de edad madura y personas mayores; también quienes ya no están, quienes acaban de llegar y quienes quieren sumergirse en la fiesta, sea cual sea su proveniencia.

Y, por supuesto, en Bilbao decimos no a la falta de civismo, no a las peleas y a los robos, no a la xenofobia y un no, aún más rotundo si cabe, a la violencia contra las mujeres, a las agresiones sexistas y a la LGTBIfobia.

Queremos que Aste Nagusia muestre al mundo lo que somos y lo que queremos seguir siendo.

***Zorionak, Marijaia!***
***Zorionak, Bilbao!***

**JUAN MARI ABURTO**
Bilboko Alkatea | Alcalde de Bilbao








Después de diez días de intenso trabajo, el cambio que experimenta el entorno del Arriaga es espectacular. June PRIETO - Marisol RAMIREZ | FOKU

# Cuando el trabajo de todo el año toma forma de txosna

El montaje de las txosnas supone miles de horas de trabajo voluntario por parte de 400 personas durante los diez días previos al txupinazo

I.G. | **BILBO**

La explanada del Arenal, la parte trasera del Arriaga y el muelle de Ripa experimentan una profunda transformación los días previos a la Aste Nagusia para albergar las txosnas de las 28 agrupaciones festivas de Bilbo. Unas estructuras para cuyo montaje se utilizan cerca de 150 toneladas de mecanotubo, 1.200 metros cuadrados de lona y más de 1.500 paneles de madera, que se decoran con 1.100 litros de pintura, según las estimaciones que realizan las entidades organizadoras.

La construcción de estas estructuras, que dio comienzo el pasado día 8 de agosto, ha supuesto por tanto diez días de intenso trabajo en los que han participado de forma voluntaria alrededor de 400 personas. Las más atrevidas, además, no han dudado en subirse a varios metros de altura para completar el tejado de estas estructuras, eso sí, pertrechadas de los correspondientes arneses de seguridad.

Pero al margen de estos últimos diez días, las comparsas no quieren olvidar el trabajo previo que se hace durante todo el año, donde las reuniones se pueden contar por cientos y las horas para la coordinación y para lograr la implicación de tantas entidades, personas y colaboradoras se pueden contar por miles.

Así pues, y aunque se trata de un trabajo muy duro, lo cierto es que el resultado final justifica el esfuerzo y este sábado día 17 todo estará listo para que miles de personas abarroten el recito festivo, dispuestas a pasárselo en grande con las más de 550 actividades festivas organizadas por las comparsas para locales y foráneos.

Para conocer los entresijos del montaje de las txosnas hemos acudido este año a la Konpartsa Pinpilinpauxa, fundada en el año 1978 y que se manifiesta abiertamente por la libertad de expresión sexual. Son harto conocidos sus shows y sus espectáculos de transfor-

## EQUIPAMIENTO INTERIOR

**Además del montaje exterior, que puede ser el más espectacular, las txosnas requieren de un importante trabajo de equipamiento interior: cocina, vestuario, escenario, barra, equipo de sonido...**




mismo, así como su capacidad para la juerga.

Garazi Cereceda, miembro de esta comparsa, nos cuenta cómo se organizan para montar su txosna (en la imagen de la derecha). «Estamos divididas en dos grupos de trabajo: montaje y decoración». Aunque la txosna propiamente dicha se empieza a montar el día 8 de agosto, los dos grupos de trabajo llevan semanas trabajando en ello, por no hablar del diseño, la decoración y otras actividades que se piensan y preparan durante todo el año.

**El primer día, la estructura**

Así pues, el día 8 a las 8 de la mañana aproximadamente empiezan con la estructura de la txosna. «Esta tarea nos suele llevar el día entero, según el número de personas que estén para montaje». El segundo día se dedican a panelar el perímetro para que así el equipo de decoración pueda empezar con sus tareas. Una vez hecho el perímetro, continúan con la parte interna, la cocina, el vestuario, el escenario, la barra, e incluso la zona de piscina.

«Más o menos para el jueves de la siguiente semana solemos tener todo el montaje listo, electricidad y fontanería incluida», explica Garazi, por lo que solo faltan algunos de los remates de la decoración que se dejan para el final. Asimismo, el miércoles por la tarde o el jueves a primera hora antes del primer sábado de Aste Nagusia tienen el equipo de sonido montado, para hacer la primera prueba de sonido por la tarde. El viernes lo dedican a ultimar los últimos detalles.

Para hacernos una idea de la extensión de estas txosnas, la de Pinpilinpauxa tiene un perímetro de 14x18 metros, es decir, 252 metros cuadrados, de los que la barra ocupa un espacio de 6x8 metros y el escenario de 6x3 metros,

Pero después de nueve intensos días de fiesta, llega el momento de desmontar las txosnas, un trabajo que se lleva a cabo entre el lunes y el martes. Es cuando comienza la cuenta atrás, el momento en el que los miembros de las comparsas comienzan a deconstruir el espacio «recuperado» al Ayuntamiento de Bilbo.

Ese lunes siguiente a las fiestas es, seguramente, el día más temido para cualquier konpartsakide. Los primeros llegan una hora después de la hora fijada, sin apenas fuerzas, con las camisetas sucias pero llenas de los recuerdos que les ha dejado el trabajo realizado a lo largo de Aste Nagusia y las emociones y sentimientos concentrados en numerosas parrandas diurnas y nocturnas.

Bilbo, tras permanecer nueve días en pleno bullicio, vuelve a la cotidianidad; los coches recuperan las calles en lugar de los peatones; los semáforos comienzan a regular las calles de un Arenal que ha vibrado con la Aste Nagusia.



## VOLUNTAD, GENEROSIDAD Y COMPROMISO

Han pasado ya 41 años desde que jóvenes y no tan jóvenes enloquecidos nos enseñaron claramente que el deseo puede superar a la realidad, que la voluntad es más poderosa para empezar a organizar la Aste Nagusia.

Estos valientes se organizaron en diferentes Comparsas e hicieron del Arenal un espacio difícil de ver en otras partes del mundo. De la voluntad, generosidad y compromiso surgió la Aste Nagusia. La Federación Bilboko Konpartsak, nombre actual de lo que en su día fue la Coordinadora de Comparsas de Bilbo, mantiene la llama de aquella ilusión: «Trabajamos durante todo el año y apostamos por una Aste Nagusia, por unos carnavales, por un Santo Tomás y por unas fiestas de todos los barrios hechas por y para la gente de Bilbo», subrayan.

Creen que la convivencia es posible, desde la diferencia y la diversidad de opiniones. Así, las comparsas agrupan a quienes no se sienten conformes con un modelo de fiesta organizado solo por las instituciones.

EZ
DA
EZ
Euskadi, auzolana
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# Zabalbidetik Erriberara, ziztu bizian

Udalak honako neurriak hartu ditu: zeinu-interprete bat jaien pregoian eta antzerki emanaldietan; irakurketa errazera eta braillera egokitutako egitaraua; lehentasunezko tokiak kontzertuetan aniztasun funtzionala duten pertsonentzat eta komun egokituak jai eremu osoan.





**Iazko edizioan hartutako bi irudi: helmugako giroa eta Jaitsiera Txikiko partaide ausart bat.** Marisol RAMIREZ | FOKU

I.G. | **BILBO**

Goitibehera, *carrilana*, *soapbox*, *speeddown*... hamaika izen erabiltzen dira planetako hainbat puntutan inertzia-kirolei buruz hitz egiteko. Aurten, seigarren urtez, adin guztietako bilbotarrek goitibeheren jaitsierari ekin ahal izango diote igande honetan, abuztuak 18.

Edonork izango du Zabalbide kaleko bihurguneetatik maldan behera joateko aukera, errodamenduzko eta egurrezko goitibehera tradizionaletan zein Bat Formulakoetan.

Ibilbidea, beraz, Angeles Custodios ikastetxean hasiko da (Zabaldide 21) eta amaiera, Erriberako merkatuan. Ordutegiari dagokionez, goizeko 9.30ean egiaztapen tekniko eta administratiboak egingo dira 10:45era arte. 10:50ean onartuen zerrendaren aurkezpena egingo da eta 11:00etan ekingo zaio probari. Izen-ematea asteartean itxi zen, beraz, izena eman ez duten zaleek espaloitik ikusi beharko dute ekitaldia aurten.

Lasterketa honen antolaketan Euskal Herriko Inertzia Kirolen Federazioak parte hartzen du (EHIKF) eta lizentziarik ez duten parte-hartzaileei eguneko asegurua egingo die, hala eskatzen baitu arautegiak. Hala eta guztiz ere, aseguru horren kostua Bilboko Konpartsek ordaintzen dute. Hamasei urtetik beherakoek, berriz, gurasoen baimena duen agiria aurkeztu behar dute.

Antolatzaileek azaldu dutenez, lau kategoriatan banatuko dira goitibeherak: pneumatikoak, errodamenduzkoak, arinak eta *drift trike* (plastikozko gurpilak dituzten trizikloak). Guztiek egiaztapen teknikoak gainditu beharko dituzte, arautegiak zehazten dituen gutxieneko baldintzak bete ditzaten, beti ere segurtasuna bermatze aldera.

**Gazteentzako tailerra**

Bestalde, eta txikienen artean zaletasun hau bultzatzeko asmoz, goitibehera-tailerra izango da helmugan, Kontsuletxearen plazan.

"Konpartsakidetu!" ekimenari esker antolatutako tailer honetan, txikienek nork bere goitibehera egin ahal izango dute, egunean bertan Jaitsiera Txikian estreinatzeko.



# Zortzi erregetara Bilboko Areatzan

Abuztuaren 20an jokatuko da Hor Dago Abante txoznaren aurrean, baina antolatzaileek aurretik izena emateko gomendioa egin dute

I.G. | BILBO

Bilboko Konpartsek antolatutako ekitaldien artean arrakasta itzela du Areatzan jokatzen den Mus Txapelketa erraldoiak. Izan ere, bertan 128 bikotek hartzen dute parte. Aurten 24. edizioa izango da eta, beti bezala, abuztuaren 20an jokatuko da (asteartea), Areatzako Hor Dago Abante txoznaren aurrean, arratsaldeko 15:00etatik aurrera. Une horretan izen-ematea itxi eta zozketari ekingo zaio.

Txapelketaren lehen edizioa Iñaki Uriarteri zor zaio, berak garrantzizkoa ikusten baitzuen mus jokoak bere lekua izatea Bilboko Areatzan. "Euskaldunon Egunkaria"ko Bilboko delegazioko arduraduna eta Konpartsen Elkartearen kide zen Uriarte, eta aurtengo txapelketan parte hartuko dutenek omenaldi xume bat eskainiko diote.

Izena emateko epea abuztuaren 17an zabalduko da Hor Dago Abante konpartsaren txosnan (Areatzan), eta zozketa ordura arte egongo da zabalik, hau da, arratsaldeko 3rak arte edota 128 bikotek izena eman arte. Bilboko konpartsak antolatzen dituen ekimen guztiak bezala, parte hartzea doakoa izango da.

Antolatzaileek, hala ere, aurretik apuntatzea gomendatzen dute, 128 bikote osatzen direnean izen-ematea itxi egingo delako. «Urtero etortzen dira bikoteak egunean bertan Bizkaiko herri askotatik» eta apuntatu ezinik ibiltzen dira. «Azkenean, batzuek bere txapelketa propioa egiten dute», azaltzen du Koldo Callado Abante konpartsako kide eta antolatzaileak.

Izen-emate epea bukatzen denean, zozketa egingo da eta bikoteak egokitutako zenbakiekin mahaietan eseri beharko dute. Behin zozketa eginda, txapelketa 15:30ak aldera hasiko da eta normalean 20:30etara luzatzen da. Behin, hala ere, hainbeste luzatu zen txapelketa bertan zeuden jokalariei suzko zezenak harrapatu ziela, Koldok gogoratzen duenez.

**Arau zorrotzak**

Txapelketaren arauei erreparatuz, jokalariek gutxienez 16 urte izan beharko dituzte. Eliminatoria bakoitza 8 hamarrekoko 3 jokotara izango da, eta joko kopuru haundiagora jolasten harrapatutakoak kanporatuak izango dira. Ez da 31 erreala onartuko, ohiko keinuak baino ez dira onartuko eta, noski, euskararen erabilpena aholkatzen da.

Antolatzaileek epai-mahai bat jarriko dute jokoan zehar izan daitezkeen zalantzak argitzeko eta ez da inpugnaziorik onartuko partida amaitu ostean.

Urteak atzera begira, sari potoloagoak egon izan dira Mus txapelketa honetan, antolatzaileek onartzen dutenez. Baina krisiak astinduta, lehen oparitzen zen bidaia bertan behera geratu zen. Oraingoan, txapeldunei txapela bana eta garaikurra banatuko zaie eta noski, Bilboko txapelduna izatearen ohorea irabaziko dute. Gainontzeko irabazleentzat 2.etik 16. era arte, garaikurra.



Itxura bikaina erakutsiko du Bilboko Areatzak datorren astearte arratsaldean. GARA

BIZKAIKO HERRI ASKOTATIK

**Antolatzaileek aurretik apuntatzea gomendatzen dute, 128 bikote osatzen direnean izen-ematea itxi egingo delako. «Urtero etortzen dira bikoteak egunean bertan Bizkaiko herri askotatik», diote, eta apuntatu ezinik ibiltzen dira.**



Arantza Uribe (Iñaki Uriarteren alarguna), Iker eta bere aita, Koldo Callado. GARA



ERREPORTAJEA







Karpatxo eta Mekanitxin pertsonaiek haurrentzat prestaturiko ekitaldiak girotuko dituzte aurten, bigarren aldiz. Irudietan, iazko kalejira-tailerra eta serigrafia-tailerra. Aritz LOIOLA - Marisol RAMIREZ | FOKU

# Gaurko haurrak, biharko konpartsakide

Gaurko haurrak biharko konpartsakide izango direnez, jaietako protagonista bihurtuko dira berriz ere aurtengo Aste Nagusian. Horretarako, iaz sortu ziren Karpatxo eta Mekanitxin pertsonaiak izango dituzte lagun, jai egunetan izangо diren ekitaldi guztiak girotzeko.

I.G.. | BILBO

Zalantzarik gabe, umeak jaiaren funtsezko partea dira eta, Bilboko Konpartsen iritziz, «ezagutu eta maite dugun Aste Nagusiaren etorkizun dira. Horregatik, oso garrantzitsua da txikitatik jaietan aktiboki parte hartzea, horiez gozatuz eta beraienak eginez», nabarmendu dute.

Igel txapelketa, zezensuzkoa, puzgarriak, antzerkia eta askoz ekintza gehiago izango dira aurtengo Aste Nagusian, umeek beraien irudimena eta energia aska dezaten, gozatu eta ikasten duten aldi berean.

Horretarako, iaz sortutako Karpatxo eta Mekanitxin pertsonaiak izango dituzte lagun, Konpartsakidetu! ekimenaren barruan. Aurten, gainera, berritasun bat izango dute, Ondalanen eskutik erraldoi-tailerra antolatu baitute asteazken arratsalderako Arriaga plazan. Horrekin batera, iazko tailerrak ere jarriko dira martxan, hala nola goitibeheratailerra igande goizean edo serigrafia-tailerra astearte arratsaldean Areatzan.

Astelehen arratsaldean, bestalde, Irrien Lagunen antzezlana izango da Areatzan; ostegun arratsaldean "Eraiki zure txosna" ekimena izango da Arriaga plazan eta larunbat eguerdian, Kartoi-bandaren kalejira ere egingo dute Areatzan.

## Umeen sukaldari eskola

Etorkizunari begira ere, umeen jarduera gastronomikoak antolatu dituzte. Aste Nagusiko astelehenean, plater begetala prestatuko dute txikiek, fruta-entsalada kozinatzen ikasteko. Asteazkenean, berriz, askotariko entsaladari ekingo diote. Modu berean, ostiralean, Euskal Txiki Masterrak ere omenaldia egingo dio gure arrain preziatuari eta bakailaoaren kokotxak pil-pilean prestatuko




Sertegi
Diseinu eta Serigrafia
Andrés Isasi, 13-2°
BILBAO
Tel. 94 421 57 77
ums21@hotmail.com









dituzte neska-mutilek, Javier Izarrak, Tamarises Izarra jatetxeko chefak, gidatuta.

Ostiraleko programazioa biribiltzeko, Zigor Iturrieta sukaldari ezagunak lagunduta, “showkaldaritza” saioa izango da; hainbat bakailaomota kozinatuko dituzte. Eta dena zuzenean segitu ahal izango da. Ez da Bilboko Konpartsen Arrain Fish Festivalen, BKAFFen, ekimen bakarra izango. Sukaldaritza Lehiaketako lau egunek osatzen dute festibala, bigarren larunbatean egingo den hegaluze-parriladarekin batera.

### Txikigunea Casilda Iturrizar parkean

Bestalde, Casilda Iturrizar parkeko Txikigunea umeen eta familien elkargunea izango da aurten ere. Horretarako, Bilboko Udalak programazio ludiko-pedagogiko zabala diseinatu du 0 eta 12 urte bitarteko neskato-mutikoentzat. Guztira, 30 jarduera baino gehiago antolatu ditu, lau gunetan banatuta.

Nobedade moduan, Txikigunea aurten ahateen urmaela dagoen gune ezagunera zabalduko da, «familiak ingurune natural batean jai giroan murgildu daitezen». Beste nobedade bat da umeentzako eta familientzako kale-antzerki emankizunak Casilda Iturrizar parkeko pergolan egingo direla.

## GARGANTUA ARRIAGARA ITZULIKO DA

Aurtengo Aste Nagusiak badu beste berritasun bat: hainbat urtetan Casilda Iturrizar parkeko txikigunean egon ondoren, aurten Gargantua ume-jale erraldoia Arriagako jaigunera itzuliko da hiru egunez (abuztuak 18, 19 eta 20). Izan ere, aurten 165 urte beteko ditu eta horregatik Marijaiaren gonbidapen zuzena jaso du Gargantuak Arriagara hurbiltzen diren ume guztiak irensteko.

Gezurra badirudi ere, Gargantua pertsonaia 1854. urtean jaio zen Bilbon. Bere sortzailea Antonio *Bombero* Etxaniz izan zen, hiriburuko arotz eta arkitekto ezaguna. 1856. urtean suhiltzaile zerbitzuan sartu zen, bertako zuzendari izatera iritsi arte, eta hortik datorkio goitizena. Hala ere, Gargantua bi urte lehenago sortu zuen, hain zuzen, 1854. urteko jaietarako.

Bere bizitzan behin baino gehiagotan hil eta berpiztu da. Horrela, 1874. urtean, karlisten guduan botatako bonba batek lehertu zuen eta 22 urte geroago, 1896an, Higinio Basterrak berpiztu zuen Atxurin. Ez zuen oso bizitza luzea izan, 1907an desagertu baitzen jai egitarautik, diotenez, Gernikako Udalak erosi zuelako.

Hirugarren bat ere izan zen, 1934. urtean, baita laugarren bat ere, 1962an sortua. Ongietorri jendetsua egin zitzaion, baina handik gutxira ahaztuta geratu zen eta 1979ko lehenbiziko Aste Nagusian parte hartzeko berreskuratu zuten.

Azkena, eta gaur egunera arte iritsi zaiguna, 1988an eskatu zion Bilboko Udalak Valentziako Vicente Lunari. Haurrentzat itxura beldurgarria du, eta oso ausarta izan behar da bere aho handitik sartu eta barruan duen txirrista aldapatsuan jaisteko. Baina hori ez da inoiz oztopo izan umeen artean maitatua izateko eta, ez hori bakarrik, Bilboko ikur nagusi bilakatzeko.

Aurten, beraz, jatorrizko jaigunera itzuliko da Gargantua, haur guztien gozamenerako.



**Gaur egun ezagutzen dugun Gargantua 1988an sortua da.** Aritz LOIOLA | FOKU



# «Gozatu itzazu zeuk ere!», Aste Nagusi inklusibo baten alde

Udalak honako neurriak hartu ditu: zeinu interprete bat jaien pregoian eta antzerki emanaldietan; irakurketa errazera eta braillera egokitutako egitaraua; lehentasunezko tokiak kontzertuetan aniztasun funtzionala duten pertsonentzat eta komun egokituak jai eremu guztian

I.G. | **BILBO**



**Bizkaiko «Bordillo aplastao» kolektiboaren eskakizunak presente izan ziren joan den urteko txupinazoan.** GARA

"Gozatu itzazu zeuk ere!" goiburupean, Bilboko Udalak jai inklusiboen aldeko apustua egin du, hainbat neurri abian jarriz. Horrenbestez, Udalaren asmoa da aniztasun funtzionala duten pertsonek Bilboko Aste Nagusian programatutako jardueretan parte hartu ahal izatea, jaiak guzti-guztientzat izan daitezen.

Horiek horrela, batetik, Bilboko Udalak zeinu hizkuntzako interprete bat jarriko du Aste Nagusiko ekitaldi hauetan: Arriaga antzokiko agurrean eta pregoian; Txikiguneko haurrentzako antzerki lanetan (abuztuaren 19an, 20an, 21ean, 24an eta 25ean); eta Arriaga plazako kaleko antzerki lanetan (abuztuaren 19ko, 20ko eta 22ko eguerdiko saioetan).

Beste alde batetik, Bilboko leku estrategikoetan, jaietako egitaraua braillez eskainiko dute. Leku hauetan eskuratu ahal izango da: Bilbao Turismoren bulegoetan (Plaza Biribila, 1, behea, eta Guggenheim ondoko kaseta); ONCEren egoitzan (Perez Galdos, 11); aireportuko informazio puntuan; Bolsa eraikineko udaltegian; Txikiguneko informazio puntuan; eta Abandoko Udaltegian (Elkano kalea, 20).

Jaietako egitaraua eta aplikazioa irakurketa errazera egokitu dira, errazago uler dadin. Irakurketa errazak adinagatik, prestakuntzagatik, hizkuntza ondo ez jakiteagatik edo beharrizan zehatzengatik ulertzeko arazoak dituztenek ere ulertzea ahalbidetzen du. Egitaraua "Bilbao Aste Nagusia" aplikazioan formatu digitalean eskura izango da.

Txikigunean, bestalde, eskala txikiko Marijaiaren erreproduzio bat izango da ikusmen urria duten pertsonentzat, eta Gargantua ere mugikortasun urria duten umeentzat egokituta egongo da. Bestalde, Txikigunean egiten diren jarduera guztiak pertsona guztien parte-hartzea bermatzeko diseinatu dira eta horretarako, monitore espezializatuak izango dira.

## JAI EREMUAK EGOKITU

**Bilboko Udalak jai eremu gehienak egokituko ditu dibertsitate funtzionala duten pertsonak iristeko modua izan dezaten. Gainera, leku batzuk erreserbatuko dira Abandoibarreko kontzertuetan eta Gizakunde elizan.**

Bilboko Udalak jai eremu gehienak egokituko ditu aniztasun funtzionala duten pertsonak iristeko modua izan dezaten. Gainera, leku batzuk erreserbatuko dira Abandoibarreko kontzertuetan (agertokiaren albo batean), Gizakunde elizan (ordubete lehenago arte) eta Europa parkean, aniztasun funtzionala duten pertsonentzat. Azkenik, komun egokituak izango dira jaigunean.

Jan da edan dotore eta etorri gero ere!
Bar Fermin
Iturribide 6
ALDE ZAHARRA
BILBO
T 94 415 01 64

TXA LA PAR TA
Janaria. Musika. Lagunak ta edariak.
Somera 5, Alde zaharra. Bilbo.

Prentsa - Aldizkari espezializatua
Aldizkari atzerritarra
Bilduma - Erreserbak
HARPIDETZA ZERBITZUA
T. 94 656 10 00
Erronda kalea (7.zbkiaren ondoan). Bilbao
gk@goikokioskoa.com · www.goikokiosko.com
goikokiosko DESDE 1992

PLANTAS SEMILLAS FLORES MIKEL ZUAZUA LANDAREAK HAZIAK LOREAK
944 04 95 40
ERRONDA, 22 · BILBO
www.mikelzuazua.com
info@mikelzuazua.com
Semilla y flores de temporada
Planta joven y de temporada para huertas, invernaderos y jardines
Venta de fitosanitarios y abonos
Turbas y sustratos
Síguenos en

BIKABI
BIKABI ARTEKARITZA, S.L.
CORREDURIA DE SEGUROS
Nafarroa Kalea, 12 1ºezk-esk. BILBO · Tel. 94.423.96.34 · bilbo@bikabi.eus

Zure lokal eta aurrekontuaren araberako musika ekipoak
KRIC KRAC Soinu eta Argiak S.L.
Musika talde berri nahiz eta ospetsuetarako, bertso saio, txosna, modelo erakustaldi, dantzaldi, jai aurkezpen eta edozein ekitaldi eta lekutarako.
Zure beharren berri emango dizuten lagunak gaituzu
krickrac@krickrac.com • www.krickrac.com
C/ GAZTELUONDO, 5 94-4222818 48.002 BILBAO

# Mario Larrinaga: «Lo he creado todo a partir de mi imaginación»

La obra «Gure mundua» del bilbaino de 20 años estudiante de Publicidad ha sido la elegida con un 40,75% de los votos sobre los seis trabajos finalistas

I.G. | BILBO

El cartel “Gure mundua” diseñado por el joven bilbaino Mario Larrinaga Mochales ha sido el ganador del concurso de carteles de este año para la Aste Nagusia de Bilbo, al recibir un 40,75% de los votos entre los seis trabajos finalistas de total de 133 que han concurrido al certamen este año. Mario tiene 20 años y es alumno de 2º curso del Grado de Publicidad y Relaciones Públicas en la Facultad de la UPV-EHU.

El trabajo de Larrinaga ha sido elegido entre un total de 133 obras presentadas, cuya procedencia va desde Bizkaia, Araba, Gipuzkoa y Nafarroa, hasta diferentes puntos del Estado como Granada, Sevilla, Valencia, Murcia o Cuenca, por ejemplo, así como Madrid o Barcelona, si bien el origen local –Bilbo y Bizkaia–, ha predominado claramente. En la presentación del cartel, la concejala de Fiestas, Itziar Urtasun, subrayó que la disparidad de procedencias de los diseños presentados a concurso ha resultado de lo «más enriquecedora», lo que al mismo tiempo ha dificultado la decisión final, ya que «todas las obras eran muy diferentes y originales».

Tras señalar que el cartel constituye «la mejor promoción de las fiestas de Bilbao por todo el mundo», Urtasun agradeció a todas las personas que han presentado una propuesta de cartel, que han dedicado su tiempo e imaginación en este certamen. «En las reuniones que hemos mantenido el Jurado para deliberar sobre la obra ganadora, hemos destacado la variedad de los enfoques artísticos y la calidad de todos los trabajos presentados». Urtasun, además, manifestó su deseo de que este cartel «guste a la mayoría de bilbainas y bilbainos y que, sobre todo, veamos cómo representa a Bilbao y a sus fiestas...». En este sentido, recordó la filosofía originaria de Aste Nagusia, que «es una fiesta popular».

El vencedor ha sido elegido este año mediante un sistema mixto de votación: el 66% por voto popular y el 33% mediante el voto de un jurado especializado.




Mario Larrinaga muestra orgulloso su cartel de la Aste Nagusia 2019. GARA

### DISPARIDAD DE PROCEDENCIAS

**Las 133 obras presentadas a concurso proceden de Bizkaia, Araba, Gipuzkoa y Nafarroa, así como de diferentes puntos del Estado como Madrid, Barcelona, Granada, Sevilla, Valencia, Murcia o Cuenca, por ejemplo.**

**Agradecimiento a la familia**

Por su parte, Mario Larrinaga, vencedor y concursante primerizo, agradeció «todo el apoyo» recibido por parte de su familia y, en especial, de su padre, que «fue quien tuvo la idea de que me presentara al concurso», tal y como indicó en la presentación de la obra.

Además, el joven, que estudia Publicidad en la Universidad del País Vasco, confesó que «no se ha inspirado en nada. Lo he creado todo a partir de mi imaginación».

**Exposición en Abando**

Entretanto, los 20 trabajos finalistas de la presente edición estarán expuestos durante todo el mes de agosto en el Centro Municipal de Abando, ubicado en el número 20 de la calle Elkano.

Este año, la elección del premio ha recaído en el público, que ha participado mediante un sistema mixto de votación, y sobre un jurado especializado, que finalmente han decidido elegir el cartel de “Gure Mundua” como imagen oficial de la Semana Grande de Bilbo de este año.

El Ayuntamiento ha calificado esta exposición como «una oportunidad única de contemplar las distintas formas de ver la fiesta en toda su plasticidad y por supuesto, de calentar motores e ir entrando en ambiente».



ELKARRIZKETA

**Jimmy**
BAR JAUNAK

El emblemático bar Jaunak, situado en el número 10 de la calle Somera, es un local con buena música en un lugar moderno y una atmósfera inmejorable. Jimmy es su responsable y de los 57 años que tiene, 27 los ha pasado regentando el Jaunak, aunque también es conocido por haber sido el batería de grupos tan conocidos como MCD.

# *«Yo me conformaría con que la Aste Nagusia se mantuviese como es ahora»*


GARA

I.G. | **BILBO**

El responsable del bar Jaunak nos cuenta que regenta el local por puro azar. Estaba con otros tres amigos intentando conseguir el traspaso de otro bar del Casco Viejo, el Morga, cuando por una obra ilegal y otra serie de motivos no pudieron adquirirlo. Así, decidieron ir al a tomar algo y comentado lo que les había pasado, se enteraron de que el responsable del Jaunak también lo traspasaba. No se lo pensaron dos veces. «Aquí tenemos el talón preparado», le dijeron.

**¿Como se viven las fiestas desde el Casco Viejo? ¿Qué ambiente podemos encontrar en esta céntrica zona de Bilbo?**
Aquí hay un ambiente muy «jatorra», sobre todo a la mañana. Al mediodía hay muy buen ambiente festivo, a la tarde-noche la gente se mueve un poco más. Y en lo que respecta a nosotros, mogollón de gente, mucho trabajo... No tenemos tiempo de ir a las txosnas. Antes, de jóvenes, sí que íbamos de gaupasa o como fuera, ahora ya no, no nos acompaña el cuerpo.

**¿Organizan algo especial para la Aste Nagusia?**
Sí, organizamos cantidad de cosas, somos parte de la asociación Gora Somera y no solo en fiestas. Organizamos cosas como el homenaje a Arriaga, el compositor que vivió en el portal de en frente. Por ejemplo, para el miércoles de la Aste Nagusia hemos organizado unos conciertos con los bares que están cerca nuestro para crear ambiente y el que se quiera acercar, bienvenido sea, tiene otra oferta cultural más.

**¿Como han cambiado las fiestas en los 27 años que lleva al otro lado de la barra?**
Antes era un ambiente más nuestro, digamos, ahora está cambiando el tema. La gente de nuestra generación que yo conocía ya no pisa tanto la calle y sí veo que las nuevas generaciones han cambiado un poco el «chip». Antes éramos la zona roja, digamos, y ahora yo creo que la gente se distribuye un poco más. Ya no

*«Antes era un ambiente más nuestro, digamos, ahora está cambiando el tema. La gente de nuestra generación ya no pisa tanto la calle y sí veo que las nuevas generaciones han cambiado un poco el 'chip'».*
















es lo mismo, no sabría explicarlo, pero sí, algo ha cambiado. Y yo creo que también ha influido la crisis económica, la gente ya no sale tanto…

**¿Participan en las fiestas como comerciantes, como comparseros o a título individual?**
Sí, por supuesto. Por ejemplo, mi compañera de trabajo participa en la comparsa Altxa Porru, en todo lo que le permite el trabajo. Hace años yo hacía turnos en Txori Barrote y otras… Ahora ya tengo 57 tacos y no puedo, no me da el cuerpo. Bastante tengo con el trabajo, que acabo derrotado. Pero sí, siempre estamos en el lío. Y luego, como músico, cuando era batería de MCD, nos ha tocado tomar parte en más de una ocasión, siempre en el jaleo.

**¿Que es lo mejor de la Aste Nagusia?**
El ambiente que se crea, la gente que organiza y por supuesto la gente que participa en la fiesta. La Aste nagusia de Bilbo es especial.

**¿Cambiaría algo de la Aste Nagusia?**
No sé…. Mira, yo me conformaría con que se mantuviese como es ahora, con la participación popular, a pesar de todos los embistes que le quiera dar el Ayuntamiento, como cambiar la ubicación de txosnas de eventos. Yo, que siga siendo como se creó, con la participación de la gente, porque está claro que a los poderosos no les gusta, porque evidentemente no la pueden controlar.

*«Me gustaría que la Aste Nagusia siga siendo como se creó, con la participación de la gente, porque está claro que a los poderosos no les gusta, porque evidentemente no la pueden controlar».*

# BOCADILLO ASIÁTICO

Puede haber algo más típico en estas fechas que ir a un bar a comer un buen bocata? Pues nada, el bar Jaunak cuenta con una carta amplia y sorprendente, donde podemos encontrar unas cuantas alternativas tradicionales (el vegetal con pollo o lomo-queso, que no pueden faltar), pero también otras propuestas internacionales.

El «asiático» fue uno de los primeros bocadillos que incluyeron en la carta cuando los responsables del bar iniciaron su andadura «en el mundo de bocatas» allá por el año 1992. Desde entonces el «asiático» no ha experimentado ningún tipo de modificación. Se trata de un bocado «completo», puesto que contiene huevo y pollo, con «el toque fresco» que le aporta el tomate y con la pincelada exótica y asiática que le ofrece la salsa de curry y las almendras crocanti.

El «asiático» es uno de los bocadillos más solicitados de entre las casi 80 combinaciones que se ofrecen. «Apenas hemos modificado aquellos bocados que incluimos en la carta al principio; lo que sí hemos hecho es incluir nuevas recetas año tras año», comenta Jimmy. De esta manera, el Jaunak se ha convertido en un lugar de referencia para aquellos que desean degustar un jugoso bocadillo en el Casco Viejo de Bilbo.

**INGREDIENTES**

- Tortilla francesa
- Pechuga de pollo
- Rodajas de tomate natural
- Almendra crocanti
- Salsa de curry
- Pan
- Sal
- Aceite






















# ¡DISFRUTANDO COMO NIÑOS!

Las fiestas constituyen ese momento tan especial que nos permite olvidar las preocupaciones y agobios de todo el año y pasarlo en grande. Disfrutar «como niños», se suele decir, dejando atrás las vergüenzas y sacando ese niño o niña que llevamos dentro. Y no cabe duda de que la Aste Nagusia bilbaina se presta a ello: desde los juegos de las Konpartsak, hasta el poteo travesti, pasando por el propio txupinazo, los concursos gastronómicos o el campeonato de tirachinas... Todo vale para gozar de unas fiestas en las que la edad no importa para disfrutar como niños, tal y como lo deja claro el veterano público asistente a las bilbainadas de la Pérgola.

Monika DEL VALLE - Marisol RAMIREZ - Jaizki FONTANEDA - Aritz LOIOLA | FOKU





